

Prosodia

Joxean Agirre

Atxaga jendaurreko hizlariaren miresle erabatekoa izan naiz eta naiz. Bere hizketa molde joria eta gozoa, esaldiak kateatzeko duen erraztasuna eta bereziki bere entonazioa eta ahotsaren donairea liluragarriak iruditu izan zaizkit. Agirre Asteasukoaren “Eracusaldia” txiki uzten zituela pentsatzen nuen duela urte batzuk, Eleuterio Tapia trikitilariaren biografia labur bat prestatzen ari ginela, haren anaia Luisi (Joseba Tapiaren aita) elkarrizketa egitera joan nintzaion arte. Hizketan hasi orduko esan nion Atxagak bezalaxe, igual-igual, hitz egiten zuela eta erantzun zidan alderantziz zela, Atxagak hitz egiten zuela Asteasuko adinekoek bezala.

Jendaurrean dugun hitz egiteko modua misterioa da. Esan daiteke lekuek

hitz egiten dutela gure ahotik. Azpeitian, esaterako, Mikel Aranburu Realeko jokalaria ohiak kale-kaleko hizkera du, Mikel Labakak, Loiola aldekoa, eta Imanol Lazkanok, Landetakoa. Zarautzen Urtetakoek edo herri-herrikoek desberdin hitz egiten dute.

Neuk lehenbiziko aldiz irratiz neure ahots grabatua entzun nuenean dezepzioa izan nuen, ez neure hitz egiteko modu traketsagatik, horren berri baren lehenagotik ere, azkena esan beharrekoa aurrea esaten baitut eta erdian esan beharrekoen haria galtzen baitut sarritan, baizik eta neure prosodia neutroegia, apalegia, entonazio gutxikoa iruditzen zitzaidalako, ohartu nintzen arte erabiltzen nuen eredu gurasoena zela, Aizarnakoa. Duela egun batzuk Lasotik Errezil aldera (zorioneko parke

eolikoaren kokapen balizkora) igotzeko asmoz abiatu nintzen eta bidean base-rritar batekin topo egin nuela, «honek nik bezalaxe hitz egiten dik», esan nuen nire burarekiko eta elkarrizketa luzatzen saiatu nintzen harrigarria egiten zitzaidalako.

Prosodia ahozkoaren musika dela esan daiteke eta badaude ahoa zabal-tzen duten bakoitzean sinfonia txiki bat interpretatzeko gai direnak, baina base-rritik kalera, belaunaldi batetik bestera ondare hori galtzen ari da. Belaunaldi bat edo bi, eta ahozko euskara atonala, monokordea, kloroduna izango da. Espero dezagun belaunaldi bat barru Iruñea edo Barakaldoko auzoetan edo Astrabuduan gazteen tribu urbanoak euskaraz hitz egiten hasiko direla eta sortuko direla prosodia berriak. •

Jantzi txamarra!

Asier Aiestaran

Iritsi da udazkena, hasi da ikasturtea eta konturatzerako, inguruan, ezutka, muki jarioarekin, sabeleko minez eta komunetik urrundu ezinik daukat jendea. Urteroko kontua da, ohituta beharko nuke, baina uda parteko hiruzpalau hilabeteko burbuilatik irtetea kosta egiten zait. Lasai: maiatzera arte badaukat astia moldatzen joateko.

Egoera zailenetatik ere zerbait onatera daitekeela esan ohi da. Eta jada ahaztu samar daukagun covid-19aren pandemiak hainbat irakaspen utzi dizkigu. Esaterako, birusen hedapenari buruz asko ikasi dugu –edo ikasteko aukera izan du, behintzat, interesa erakutsi

duenak–, nahiz eta ikasitako hori praktikan jartzea asko kostatzen zaigun heriotzaren mehatxua gertu sumatzen ez badugu.

Covida bezalaxe, badakigu hotzeria, gripea eta antzeko gaixotasunak sortzen dituzten birusak airetik hedatzen direla batez ere, ezutl eta doministikuen ondorioz, eta garbitasunak ere garrantzia duela, birusa gainazalen batean badago, eskuekin ukitu eta eskua ora edo su-durrera eramanez gero. Pandemia garaian hedapen modu horiei buruz hainbat ikerketa egin dira eta nabardurak egon daitezkeen arren, esan dezagun, oro har, horrela dela.

Horregatik, grazia egin zidan gogoratzek, umea nintzela, zenbat aldiz entzungo ote nuen inguruko helduen agindua: «Jantzi jertsea/txamarra, bes-tela hoztu egingo zara-eta». Oraindik orain, gurasoek haurrei zuzendutako agindu ohikoenetako bat izaten da.

Eta, hara non, sarean arakatzen nenbilela, hotzak birusen infekzio ahalmenetan duen eraginaz, beste hainbat ikerketaren berri izan dudana. Antza denez, eta erabat frogatzea zaila den arren, gerta liteke hotz edo busti egoeretan birusek infektibitate handiagoa izatea. Beraz, eta zientziak besterik deskubritu artean, hobe amonari kasu egitea. •